

---

## KOMUNIKAZIOA-TEKNIKARIA HAUTATZEKO PROZESUA. 2025, 1.A FASEA: TEST MOTAKO PROBA

---

Proba egiteko denbora: **ordubete**.

1A faseari dagokion proba honetan gehienez ere 20 puntu lor daitezke Galdera bakoitza honela ebaluatuko da:

ASMATZEA: 0,4 puntu

HUTS EGITEA: - 0,133 puntu

---

### 1. Zein da Web 2.0aren ezaugarri nagusia Web 1.0tik bereizten duena?

- a) Edukia HTML formatuan eskaintzeko gaitasuna.
- b) Algoritmoak erabiltzea bilaketa-motorretan posizionamendua hobetzeko.
- c) Sare sozialak, blogak, wikiak eta beste plataforma batzuk erabiltzea zenbait kasutan.
- d) Erabiltzaileen elkarrekintza eta parte-hartzea, beraiek sortutako edukiaren bidez.

### 2. Eusko Jaurlaritzaren Sare Sozialetako Erabilera eta Estilo Gidaren arabera, zer helburu nagusi lortu behar du erakundeek sare sozialetan duten presentziak?

- a) Jarraitzaile kopurua hazaraztea sustatzea.
- b) Irudi korporatibo bateratua sustatzea.
- c) Gardentasuna bermatzea eta demokrazia parte-hartzailea erraztea.
- d) Publikoengan eragina duten erabiltzaileekin hartu-emanak areagotzea.

### 3. Zer elementu da funtsezkoa web-orri baten posizionamendua hobetzeko, SEOren printzipioen arabera?

- a) Kalitate oneko irudiak erabiltzea arreta bereganatzeko.
- b) Edukian eta metadatuetan garrantzitsuak diren gako-hitzak sartzea.
- c) Eduki esanguratsua behin eta berriz argitaratzea, erabiltzaileek erraz aurreikusteko moduan.
- d) Diseinua bisualki erakargarria dela ziurtatzea.

### 4. Zein da RSS "feed" baten funtzio nagusia erakundearen komunikazioan?

- a) Web orri baten diseinu bisuala hobetzea.
- b) Bilaketa-motorretarako (SEO) edukia optimizatzea.
- c) Erabiltzaileen trafikoari buruzko estatistika aurreratuak sortzea.
- d) Eduki eguneratuaren harpidetza eta banaketa automatikoa erraztea.

### 5. Nola laguntzen dute etiketek (tags) erakunde baten komunikazio digitaleko estrategian?

- a) Trafikoan oinarritutako datu estatistikoak automatikoki sortzeko aukera ematen dute.
- b) Erlazionatutako argitalpenak konektatzen eta nabigazio tematikoa hobetzen laguntzen dute.
- c) Webgunetako menu nagusiak osatzen dituzte.
- d) Datu sentikorren segurtasuna bermatzen dute lineako plataformetan.

**6. Zer da "web nabigazioaren *tracking*-a" komunikazio digitalaren testuinguruan?**

- a) Erabiltzaileen datuak biltzea, mezu elektronikoak automatikoki bidaltzeko.
- b) Web orri bateko erabiltzaileen portaera aztertzeko prozesua.
- c) Pasahitzak erabiltzea webguneko atal jakin batzuetarako sarbidea mugatzeko.
- d) Erabiltzailearen gailura automatikoki egokitzen den edukiaren diseinua.

**7. Zerk bereizten du Instagrameko enpresa-kontu bat kontu pertsonal batetik?**

- a) Ez dago alde esanguratsurik.
- b) Enpresa-kontuek edukiak argitaratzeko aukera gehiago dituzte.
- c) Enpresako kontuek analisi- eta publizitate-tresnak dituzte eskura.
- d) Kontu pertsonalek kontu pertsonalek interfaze errazagoa dute.

**8. Zein da SEM eta SEOren arteko desberdintasun nagusia?**

- a) SEO ordainpekoa da eta era organikoan edukiak kudeatzeko aukera ematen du.
- b) SEO doakoa da, eta epe luzerako emaitzak ematen ditu modu organikoan; SEM, berriz, ordainpekoa da, berehalako emaitzak eta kanpainen gaineko kontrola eskaintzen ditu.
- c) SEO sare sozialetan zentratzen da, eta SEM bilaketa-motorretan.
- d) SEM doakoa da eta marketin digitaleko ekintzen errendimendua handitzea ahalbidetzen du.

**9. Zer dira erabilgarritasun-printzipioak (gazteleraz, direlako *principios de usabilidad*)?**

- a) Webgune baten estetika bisualerako arauak.
- b) Erabilerrazak diren erabiltzaile-interfazeak sortzeko jarraibideak.
- c) Web aplikazioak programatzeko arauak.
- d) Bilaketa-motorrak optimizatzeko estandarrak.

**10. Nola hobetzen du CSS estilo-orrien erabilerak webgune instituzional baten kudeaketaren eraginkortasuna?**

- a) Fitxategi bakar batetik hainbat orrialdetan diseinua aldatzeko aukera emanez.
- b) Fitxategiak konprimatuz, zerbitzarien abiadura handituz.
- c) Datu-base egituratuak sortuz, erabiltzaileen informazioa biltegitratzeko.
- d) Eduki dinamikoa sortzeko interfaze grafikoa eskainiz.

**11. Zer da "Open Data" testuinguru instituzionalean?**

- a) Segurtasun-gakoen bidez erraz eskura daitezkeen datu publikoak.
- b) Erakunde publikoek edo pribatuak argitaratutako datuak, askatasunez eskuratu, erabili eta berrerabiltzeko.
- c) Tokiko zerbitzarietan biltegitratutako informazioa, datuen erabileran segurtasuna bermatzeko.
- d) Helburu akademiko, administratibo edo enpresa-mundurako eskuragarri dauden datu-baseak

**12. Zer da audientzia pertsonalizatua *Facebook Ads*-en?**

- a) Ausaz hautatutako erabiltzaile-talde bat.
- b) Aldez aurretik markarekin elkarreragina izan duten erabiltzaileen talde bat.
- c) Datu demografiko orokorretan oinarritutako erabiltzaile-talde bat.
- d) Aldagai-multzo baten arabera hautatutako erabiltzaile-talde bat.

**13. Zein da komunikazio instituzionalaren helburu nagusia?**

- a) Ideiak, produktuak eta zerbitzuak sustatzea.
- b) Informazioa ematea eta publikoekin harreman gardena izatea.
- c) Legegintzaldiko gobernu-ekintzarako joera positiboa izatea.
- d) Eduki birala sortzea.

**14. Zein da *reel* baten eta Instagrameko *feed*-eko argitalpen baten arteko desberdintasun nagusia?**

- a) *Reel*-ak bideo laburrak dira, eta sormenezko edizioko eta musikako tresnak dituzte. *Feed*-eko argitalpenak, berriz, iraupen mugarik gabeko irudiak edo bideoak izan daitezke.
- b) *Reel*-ak 90 segundo arteko bideo laburrak dira, tresna sortzaileekin; *feed*-eko argitalpenetan, berriz, irudiak eta bideoak sar daitezke, sormenezko ediziorik gabe.
- c) *Reel*-ak jarraitzaileekin bakarrik partekatzen dira, eta *feed*-aren argitalpenak, berriz, publikoak dira beti.
- d) *Reel*-ek iruzkinak eta erreakzioak ahalbidetzen dituzte; *feed*-aren argitalpenek, berriz, ez.

**15. Aukera hauetako zein da *LinkedIn*en post baten irismena handitzeko gomendatutako praktika bat?**

- a) Ahal dela, testua argitaratzea, irudirik eta bideorik gabe.
- b) Postaren edukiarekin lotutako *hashtag* garrantzitsuak erabiltzea.
- c) Postaren hasieran bereziki kanpoko estekak sartzea.
- d) 2.000 hitz baino gehiagoko argitalpenak idaztea.

**16. Zein izan da informazio- eta komunikazio-teknologien inpaktu nagusietako bat informazio-arloan?**

- a) Informaziorako sarbide txikiagoa.
- b) Albisteak bizkortzea eta informazioa berehala zabaltzea.
- c) Ohiko baliabideak pixkanaka ordezkatzeta.
- d) Herritarren parte-hartzea gutxitzea.

**17. Uraren Esparru Zuzentarauaren arabera, zein da ibai kategoriako ur-masentzat "egoera ona" lortzeko helburua?**

- a) Ur-hornidura unibertsala bermatzea.
- b) Ur-ingurumena babestea eta hobetzea.
- c) Lurraldearen garapena bultzatzea.
- d) Lurraldeko ibai guztietako ibaiertzeko landaredia erabat berreskuratzea.

**18. Zer jarduerak behar dute jabari publiko hidraulikoa okupatzeko baimena?**

- a) Hondakinak kentzea eta ibaiertzeko landaredi autoktonoa landatzea.
- b) Sentsibilizazio-ekintzak, ibaietako boluntariotza-jardunaldiak kasu.
- c) Aisialdirako nabigazioa.
- d) Zubiak edo presak bezalako azpiegiturak eraikitzea.

**19. Ekainaren 23ko 1/2006 araua hau da:**

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko Uraren Legea.
- b) Estatuko Uraren Legearen testu bategina.
- c) Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko Lege Orokorra.
- d) Aurrekoetatik bat ere ez.

**20. Euskal Autonomia Erkidegoko Uren Legearen arabera, nori dagokio hondakin-uren saneamendu- eta arazketa-zerbitzua emateko eta hornitzeko esparru-erregelamendua egitea eta Eusko Jaurlaritzari proposatzea, dekretu bidez onar dezan?**

- a) Uraren Euskal Agentziari.
- b) Arroko erakundeei.
- c) Toki-erakundeei, EUDELen bidez.
- d) Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari.

**21. Zein da Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren xede nagusia?**

- a) Lan-eremuan datu pertsonalen erabilera arautzea.
- b) Pertsona fisikoek beren datu pertsonalen tratamenduari dagokionez dituzten oinarritzko eskubideak bermatzea eta babestea.
- c) Merkataritza elektronikoan datuak babesteko arauak ezartzea.
- d) Publizitatea eta zuzeneko marketin-ean pertsonen babesa arautzea.

**22. Zein da Facebook Livek eutsi dezakeen bereizmen maximoa zuzeneko transmisioetarako?**

- a) 480p.
- b) 720p.
- c) 1080p.
- d) 4K.

**23. Zein da bideo baten gehieneko iraupena Facebookeko hormako argitalpen erregular batean?**

- a) Minutu bat.
- b) 10 minutu.
- c) 60 minutu.
- d) 240 minutu.

**24. Zein da Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen xede nagusia?**

- a) Gizonen eta emakumeen arteko soldata-berdintasuna arautzea.
- b) Bizitzaren eremu guztietan emakumeen eta gizonen arteko tratua eta aukera berdintasuna sustatzea.
- c) Enpresa pribatu zein administrazio publikoan genero-kuotak ezartzea.
- d) Berdintasuna bermatzea goi-mailako hezkuntzara edo herri-administrazioetako erantzukizuneko lanpostuetara sartzean, besteak beste.

**25. YouTubeko zein tresna erabil daiteke *YouTube Short* bati musika gehitzeko?**

- a) *YouTube Studio*.
- b) *YouTube Music*.
- c) *YouTube Creator Academy*.
- d) *YouTube Shorts Camera*.

**26. Zer neurri aipatzen da 4/2005 Legean administrazioaren araudian eta jardueran berdintasuna sustatzeko?**

- a) Genero-berdintasunari buruzko prestakuntza-programak ezartzea.
- b) Enpresa bakoitzean berdintasun-batzorde bat sortzea.
- c) Arau eta politika publikoak egitean genero-ikuspegia txertatzea.
- d) Genero-bereizkeriagatiko zehapenak ezartzea.

**27. Zein da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak Interneten duen presentzia-ereduaren helburu nagusia?**

- a) Tresna teknologikoen erabilera murriztea.
- b) Funtzio guztiak organismo bakar batean zentralizatzea.
- c) Edukien integrazioa eta bateragarritasuna bermatzea, eta baliabideak optimizatzea.
- d) Administrazio-kudeaketan herritarren parte-hartzea bideratzea.

- 28. Herritarrei arreta integrala eta kanal anitzekoa emateari eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoen bidez eskuratzeari buruzko 91/2023 DEKRETUAREN arabera, zer ezartzen da funtsezko betekizun gisa zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoen bidez eskuratzeko?**
- a) Izapideak egiteko sinadura digital bat erabiltzea.
  - b) Zerbitzu guztietarako prozedura automatizatuak ezartzea.
  - c) Herritar guztiek zerbitzu elektronikoetara iristeko gailu espezifiko bat izateko beharra.
  - d) Herritarren datuak babestuko dituzten autentifikazio-mekanismo seguruak ezartzea.
- 29. Zein organok du euskadi.net atariekin lotutako Antolakuntza eta Funtzionamendu Eskuliburua eguneratuta edukitzeko ardura?**
- a) Zerbitzu Elektronikoen Unitatea.
  - b) Berrikuntza Teknologikoko Zerbitzua.
  - c) Herritarrek Artatzeko eta Administrazioa Berritzeko Zuzendaritza.
  - d) Eusko Legebiltzarreko Erakunde, Gobernantza Publiko eta Segurtasun Batzordea.
- 30. Zein elementu EZ da Eusko Jaurlaritzaren Interneteko presentzia-ereduaren "elementu komunak" izenekoetan sartzen?**
- a) Prestakuntza-eskuliburuak.
  - b) Katalogazio-ardatz orokorrak.
  - c) Eduki-kudeatzaile independenteak.
  - d) Erabilera komunekeo tresnak eta aplikazioak.
- 31. Zein da Euskadiko Administrazio Elektronikoen Ereduaren helburu nagusietako bat herritarrei arreta emateari dagokionez?**
- a) Zerbitzu digitalen kopurua murriztea.
  - b) Zerbitzu digitalen erabilerraztasuna eta erabilgarritasuna hobetzea.
  - c) Zerbitzu guztiak plataforma fisiko bakar batean batzea.
  - d) Herritarrek lineako zerbitzuetarako sarbidea mugatzea.
- 32. Herritarrei arreta integrala eta kanal anitzekoa emateko eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoen bidez eskuratzeko 91/2023 DEKRETUAREN arabera, zein da herritarrei arreta integrala eta kanal anitzekoa ematearen helburu nagusia?**
- a) Herritarrekiko elkarreragin osorako komunikazio-bideak bateratzea.
  - b) Herritarrei arreta emateko berariaz baliabide telematikoen erabilera sustatzea.
  - c) Zerbitzu publikoak hainbat kanalen bidez (elektronikoak, telefono bidezkoak eta aurrez aurrekoak) irisgarriak direla bermatzea.
  - d) Herritarren eta administrazioaren arteko zuzeneko elkarreraginen kopurua murriztea.

**33. Zein desberdintasun dago hizkuntza argiaren eta komunikazio publikoko irakurketa errazaren artean?**

- a) Bi terminoak baliokideak dira eta ez dute desberdintasun esanguratsurik.
- b) Hizkuntza argia dokumentuak formatu askotara egokitzean oinarritzen da; irakurketa errazak, berriz, termino teknikoak sinplifikatzen ditu.
- c) Irakurketa erraza lege-testuetan bakarrik erabiltzen da; hizkuntza argia, berriz, dokumentu informaletan.
- d) Hizkuntza argia herritar guztientzat da, eta irakurketa erraza, berriz, ulertzeko zailtasunak dituzten pertsonentzat.

**34. UNE-EN 301549:2019 arauaren arabera —IKT produktu eta zerbitzuen erabilerraztasun-baldintzei buruzkoa—, hauetako zein EZ da funtsezko printzipioa web-irigarritasuna bermatzeko?**

- a) Hautemangarritasuna (*perceptibilidad*)
- b) Sendotasuna. (*robustez*)
- c) Eramangarritasuna. (*portabilidad*)
- d) Operatibotasuna. (*Operabilidad*)

**35. Zer jaso behar dute irigarritasunaren berrikuspen-txostenek, 1112/2018 Errege Dekretuaren arabera (sektore publikoko webguneen irigarritasunari eta gailu mugikorretarako aplikazioei buruzkoa)?**

- a) Akats funtzionalen eta diseinu estetikoaren zerrenda zehatza.
- b) Irigarritasun-baldintzak betetzeari buruzko ebaluazioa eta adostasun-adierazpena.
- c) Beste webgune batzuekiko azterketa konparatiboa.
- d) Gunea garatzeko erabiltzen diren teknologien zerrenda.

**36. Zein erabilgarritasun-printzipio aplikatzen da UNE-EN 301549:2019 arauaren arabera — IKT produktu eta zerbitzuen erabilerraztasun-baldintzei buruzkoa — webgune irigarrien diseinuan?**

- a) Guneek bateragarriak izan behar dute gailu modernoekin.
- b) Guneek hautemangarriak (*perceptible*), eragingarriak (*operable*), ulergarriak (*comprehensible*) eta sendoak (*robustos*) izan behar dute.
- c) Estetika eta irudi korporatiboa lehenetsi behar dituzte guneek.
- d) Guneek konfigurazio espezifikoak behar dituzte erabiltzaile bakoitzarentzat.

**37. Zer informazio jaso behar du sektore publikoko webgune baten erabilerraztasuna berrikusteko txosten batek?**

- a) Gunea bisitatu duten erabiltzaileen kexen zerrenda.
- b) Ebaluazioa egitea irisgarritasun-baldintzen, identifikatutako oztopoen eta proposatutako hobekuntzen arabera.
- c) Web trafikoaren metrikak eta nabigatzeko zailtasunak dituzten erabiltzaileen hileko bisiten estatistikak.
- d) Webgunea mantentzeko lanei buruzko informazioa.

**38. Herritarrei arreta integrala eta kanal anitzekoa emateari eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoen bidez eskuratzeari buruzko 91/2023 Dekretuaren arabera, zein da atariatz arduratzen den teknikariaren rol nagusia?**

- a) Webgunearen diseinu bisuala zein funtzionaltasunaren ardura hartzea.
- b) Irisgarritasun-baldintzak betetzen direla kudeatzea eta eduki digitalak eguneratuta edukitzea.
- c) Erregistratutako erabiltzaileen datu-baseak kudeatzea.
- d) Webgunearen mantentze-lanak betetzen direla zaintzea.

**39. Zein da web-analitikaren helburu nagusia Eusko Jaurlaritzaren atarietan?**

- a) Web atarien segurtasuna hobetzea.
- b) Web trafikoa neurtzea eta aztertzea, erabiltzailearen esperientzia eta zerbitzuak hobetzeko.
- c) Web atariak hobetzeko neurriak identifikatzea eta ezartzea.
- d) Atariak bisitatzen dituzten erabiltzaileen kopurua handitzea eta haien gogobetetasuna handitzea.

**40. Zer motatako datuak biltzen diren web-analitikaren bidez Euskadiko atarietan?**

- a) Webgunearen erabiltzaileen datu pertsonalak.
- b) Nabigazio-datuak, hala nola bisitatutako orriak, bisitaren iraupena eta trafikoaren jatorria.
- c) Egindako izapideen eta transakzioen datuak, zein horiek lortutako emaitzak.
- d) Erabiltzaileek bisitatzen dituzten gainontzeko webguneetako erabiltzaileen portaeren konparazioari buruzko datuak.

**41. Zer da ur-masa baten "egoera ekologikoa" Uren Esparru Zuzentarauaren (2000/60/EE) arabera?**

- a) Ur-masa baten kalitatea, adierazle hidromorfologikoen arabera.
- b) Ekosistema urtarren kalitatea, adierazle fisiko-kimikoen arabera.
- c) Ekosistema urtarren kalitatea, hainbat adierazleren arabera, adierazle biologikoak barne.
- d) Giza jardueretan erabiltzeko ur-masaren kalitatea.



**42. Zein da Uren Esparru Zuzentzarauaren (2000/60/EE) helburu nagusia?**

- a) EBN uraren hiri-zikloa kudeatzeko arau komunak ezartzea.
- b) 2027rako Europar Batasuneko ur-masa guztietan uren egoera ona lortzea.
- c) Uraren erabileraren eraginkortasuna handitzea, EBN kontsumitutako edateko ur kantitatea mugatuz.
- d) EBko edateko uraren zerbitzua eta tarifak arautzea.

**43. Uren Esparru Zuzentzarauaren arabera, zein da plangintza hidrologikoaren helburu nagusietako bat?**

- a) Giza jardueretarako demarkazio hidrografikoan eskuragarri dagoen ur guztia eskuratzea bermatzea.
- b) Uren egoera babestea eta hobetzea, kudeaketa jasangarriaren bidez, kalitate- eta kantitate-helburuak lortuz.
- c) Ur-masen gaineko giza presio guztiak ezabatzea, garapen ekonomikoa zaintzeaz gain.
- d) Pixkanaka, demarkazioko ur-masa guztien jatorrizko egoera berreskuratzea.

**44. Uraren Legearen Testu Bateginaren arabera (1/2001 Legegintzako Errege Dekretua), zer da "jabari publiko hidraulikoa"?**

- a) Lurrazalera ateratzen ez diren lurpeko ur publikoak.
- b) Lurraldean jatorria duten eta biltegietan jasotzen diren urak.
- c) Titulartasun publikoko ibaien, lakuen, urtegien, akuiferoen edo bestelako urak.
- d) Sistema itxietan berrerabiltzeko tratatutako hondakin-urak, jatorriz publikoak.

**45. Zein da Euskal Autonomia Erkidegoko Uraren ekainaren 23ko 1/2006 Legearen helburu nagusia?**

- a) Ibai-ibilguen eta ur-masen titulartasuna —eta horren irismena— zehaztea.
- b) Lurraldeko edozelako ur-eskari osoa asetzen dela bermatzea, lurraldearen erresilientzia zaintzeko.
- c) Euskadik herritarrei zerbitzua emango dien eta lurraldean lotutako jarduera ekonomikoa sustatuko duen uraren sektore aurreratua izatea lortzea.
- d) Euskal Autonomia Erkidegoko ur-baliabideak babesteko eta modu jasangarrian kudeatzeko arau-esparrua ezartzea.

**46. Herritarrek zerbitzu publikoetan sarbide elektronikoa izateari buruzko 11/2007 Legearen arabera, zer egin behar dute administrazio publikoek beren zerbitzu elektronikoaren irisgarritasuna bermatzeko?**

- a) Gailu elektronikoetarako doako sarbidea eskaintzea.
- b) Zerbitzu elektronikoak desgaitasuna duten pertsonen eta adinekoei egokitzea.
- c) Gaitasun digitalei buruzko prestakuntza eskaintzea hala eskatzen duten herritar guztiei.
- d) Zerbitzu elektronikoetarako sarbidea trebetasun teknologiko aurreratuak dituzten herritarrei bereziki eskaintzea.

**47. Uren Legearen testu bategina onartzen duen 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, zein da plangintza hidrologikoaren helburu nagusietako bat?**

- a) Urtegi, presa, ubide, ubide eta abarren eraikuntza arautu eta kontrolatzea, erabilera pribaturako.
- b) Baliabide hidrikoak ahalik eta gehien erabiltzea sustatzea, ahalik eta murrizketarik txikienekin.
- c) Baliabide hidrikoen erabilera arautzea eta jabari publiko hidraulikoa babestea, uren kalitatea eta epe luzerako erabilgarritasuna ziurtatzeko.
- d) Azaleko eta lurpeko uren erabilera sustatzea giza kontsumorako bakarrik.

**48. Zein da Euskal Sektore Publikoan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Dekretu berriaren berritasun nagusietako bat?**

- a) Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeke dauden aukerak bateratzea.
- b) Hizkuntza-eskakizunak esleitzeko sistema malguagoa sartzea.
- c) Dekretuaren jardun-eremua murriztea.
- d) Hein batean, toki-erakundeak normalizazio-prozesutik kanpo uztea.

**49. Eusko Jaurlaritzaren Sare Sozialetako Erabilera eta Estilo Gidaren arabera, zer saihestu behar da argitalpenetan?**

- a) Pertsona identifikagarrien irudiak erabiltzea.
- b) Hizkuntza inklusiboa.
- c) Eduki iraingarria edo diskriminatzailea.
- d) Informazio ofiziala.

**50. Uraren Euskal Agentziaren estatutuen arabera (178/2023 Dekretua), zer jarduera-eremu du agentziak uraren kudeaketari dagokionez?**

- a) Azaleko eta lurpeko uren kalitatea kontrolatzea eta zaintzea.
- b) Ur-baliabideak planifikatzea, kudeatzea eta babestea, eta horien erabilera iraunkorra eta orekatua ziurtatzea.
- c) Uren kudeaketaren eremu guztietan jardutea, ur-hornidura, saneamendua eta ur-ingurumenaren babesa barne.
- d) EAEko baliabide hidrikoen erabilera ordenatua arautzea orohar.

## ERRETSEBBA-GALDERAK

---

**51. Zer kalitate-elementu erabiltzen dira ibai-kategoriako ur-masen egoera ekologikoa ebaluatzeko, Uraren Esparru Zuzentaruaren arabera?**

- a) Adierazle biologikoak, hidromorfologikoak eta fisiko-kimikoak
- b) Adierazle biologikoak bakarrik.
- c) Adierazle kimikoak eta mikrobiologikoak.
- d) Adierazle fisiko-kimikoak eta ekonomikoak.

**52. Zer dira estilo-orriak (CSS)?**

- a) Datu-baseak aurkezteko programazio-lengoaia bat.
- b) HTML dokumentu baten aurkezpena definitzeko arauen multzo bat.
- c) Irudiak editatzeko software bat.
- d) Fitxategiak transferitzeko protokolo bat.

**53. Sektore Publikoko Kontratuen Legearen arabera, nola esleituko dira kontratuak?**

- a) Hainbat esleipen-irizpide erabiliz, kalitate-prezio erlazio onenean oinarrituta.
- b) Hainbat esleipen-irizpide erabiliz, ekonomiaren aldetik onuragarriena den eskaintzan oinarrituta.
- c) Lehentasunezko esleipen-irizpide gisa eskaintzaren kalitate teknikoa erabiliz.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

**54. Zein printzipio ezartzen da 11/2007 Legean herritarrek herri-administrazioekin bitarteko elektronikoen bidez harremanetan jartzeko?**

- a) Eskusibotasun-printzipioa.
- b) Gardentasun-printzipioa.
- c) Berdintasun-printzipioa.
- d) Neutraltasun teknologikoaren printzipioa.

**55. Zein eskubide dute herritarrek, 11/2007 Legearen arabera, dokumentuak aurkezteari dagokionez?**

- a) Agiriak paperean bakarrik aurkezteko eskubidea.
- b) Dokumentuak bitarteko elektronikoen bidez aurkezteko eskubidea.
- c) Dokumentuak pertsonalki bakarrik aurkezteko eskubidea.
- d) Dokumentuak postaz bakarrik aurkezteko eskubidea.

**56. Ondorengo eskubideetatik, zein EZ zaie aitortzen herritarrei 39/2015 Legean?**

- a) Baliabide elektronikoak erabiltzean laguntza jasotzeko eskubidea.
- b) Administrazio-dokumentuen benetako kopia eskuratzeko eskubidea.
- c) Datu pertsonalak isilpean gordetzeko eskubidea.
- d) Administrazio-prozeduran parte hartzeko eskubidea.